

## **EUGENIO RODRÍGUEZ PASCUAL FUNDAZIOA:** **IKERKETA BIOMEDIKORAKO LAGUNTZEN** **DEIALDIA 2019**

### ***Proiektuen iraupena:***

Proiektuek urte bateko edo biko iraupena izango dute.

### ***Finantzaketa:***

Proiektuengatik, gehienez, 25.000 euro emango dira urteko.

### ***Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:***

UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.

### ***Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:***

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- b. Eskaera aurkezten denean, lotura izatea edozein herrialdetako irabazi asmorik gabeko eta ikerketara emanak diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. Pertsona horiek UPV/EHUa aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.
- a. Beste proiektu batzuen karguko obra edo kontratu zerbitzua duten ikertzaile kontratatuek **EZIN** dute parte hartu deialdi honetan.

**GARRANTZITSUA:** Ikertaldeko kideek, baldin eta laguntza gauzatu bitartean UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, **ezin** izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

### ***Aurkeztu beharreko dokumentuak:***

- a. Proiektuaren memoria.
- b. Taldekide guztien CVa.
- c. Ikertzaile nagusiaren IFZaren fotokopia.
- d. UPV/EHUko Etika Batzordearen txostena (behar izanez gero).
- e. **Ikertzaile nagusiak eta Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako gutuna.**

### ***Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:***

Deialdi honek ez du ikertzaileen kontratazioa finantzatuko.

**UPV/EHUko ikertzaile nagusiek aurkeztutako eskaerek zehar kostuen %5a jaso beharko dute aurrekontuan nahitaez.**

**GARRANTZITSUA:** 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

***Eskaerak aurkezteko azken eguna:***

**Uztailaren 1a, 20:00ak arte**

***Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:***

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
Ekainaren 21a	Ikertzaile nagusia	Bidali I. Eranskina, aurrekontua eta errektoreordearen sinadura behar duten inprimakiaren orriak helbide honetara: <a href="mailto:igz.deialdiak@ehu.eus">igz.deialdiak@ehu.eus</a> Fase honetan ez da zientzi memoria osoa bidali behar.
Ekainaren 26a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali inprimakia Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta.
Uztailaren 1a, 20:00etan	Ikertzaile nagusia	Eskaerak Fundazioan aurkezteko azken eguna. Era berean, ikertzaile nagusiak bidali beharko du eskaera osoa artxibatzeko: <a href="mailto:igz.deialdiak@ehu.eus">igz.deialdiak@ehu.eus</a> helbidera.

**GARRANTZITSUA:** Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

***UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:***

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

***UPV/EHUrekiko harremana:***

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

***Fundazioarekiko harremana:***

- Telefonoa: 651 178 787
- E-maila: [secretaria@fundacioneugeniorodriguezpascual.es](mailto:secretaria@fundacioneugeniorodriguezpascual.es)

**Informazio gehiago:**

<https://www.fundacioneugeniorodriguezpascual.es/ayudas.php>